

LABen akordio laboralak posible egin du Gizarte ekimeneko mahaian aurkezturiko proposamena baina soldaten ekiparazioa baztertu denez ez du sinatu aurre-akordioa eta bere oinarriekin baloratuko du

Lan-hitzarmen berri baterako aurre-akordioan LABek ekainaren 1eko akordio laborean adostu zituen enplegua mantentzeko neurriak jaso dira, lan zametan eta birkokapen prozesuetan aurrerapausoak daude, baina ekiparazioari uko egin zaio.

Gizarte Ekimeneko lan-hitzarmena berritzeko borrokan hamalau greba egun egin ondoren, langileen indarraren ondorioz patronalak mugiarazi ditugu eta azkenik lan-hitzarmen berri baterako oinarriak jartzen dituen proposamena aurkeztu da. Aurrekoakordioan jasotakoan artean dago gizarte ekimeneko langileen soldaten %16ko igoera. Halaber, LABek ez du ulertzen zergatik uko egin zaion mahai gainean zegoen langile publikoekiko soldaten ekiparazioari, %18ko eta %20ko igoerei, hain zuzen ere. LABen ustez langileen borrokaren ondoriozkoa den garaipen nagusienetakoa den honi uko egin diote gainerako sindikatuek patronalek ontzat ematen bazuten ere. Gauzak horrela, LABek aurreko akordioa ez du sinatu eta bere oinarriekin baloratuko du erabaki definitiboa hartzeko

Horretaz gain, aurre akordioak hurrengoak jasotzen ditu:

- Administrazio eta Zerbitzuetako langileei 25 orduko lanaldi murrizketa; ez dozente titulatuak, haur hezkuntzako lehen zikloko irakasleei eta hezkuntza laguntza espezialistei 20 orduko lanaldi murrizketa; eta haur hezitzaileei 38 orduko lanaldi murrizketa.
- Berehalakoak diren lan-zamak arintzeko neurrietan 24-25 ikasturtean etapa guztietan ordu osagarri bat gutxiago hau norberaren lanetarako izanik.
- Lanbide Heziketan bikoizketak arautzeko prozedura zein konpentsazio ordu gehigarriak.
- Birkokapen akordioa bermeduna izateko ikastoletan bezalaxe lan-hitzarmenean txertatzeko klausula ezberdinak jaso dira, besteen artean sektorean langilearen antzintasuna aitortuz.
- Ikastoletan bezalaxe jaiotze-tasaren jaitsieraren aurrean enplegua mantentzeko prozedura jasotzen du akordioak. Akordioaren ondorioz, ondorengo hilabeteetan negoziatu eta adostuko dira kategoría berriei dagozkien lanpostuak euskara eta hizkuntza gaitasuna indartzeko, behar bereziak dituzten ikasleei arreta hobetzeko, hezkuntza berrikuntzan sakontzeko, kudeaketa hobetzeko eta langileen lan zamak arintzeko neurri berriak. Eta horrekin batera, 60 urtetik gorako langileen gazte berritze planak gauzatzeko neurri zehatzen azterketa ere.

Bukatzeko, LABek greba eta mobilizazioetan parte hartu duten langileak zoriondu nahi ditu eta lan-hitzarmenaren zein enplegua mantentzeko neurrien garapenean orain arte bezala era aktibo batean parte hartuko duela adierazi. Halaber, patronalei adierazten die akordio honen gauzatzean arreta berezia jarriko duela, Gizarte ekimeneko langileek dagokiena lortzeko borrokatuz eta hezkuntzako sare publiko bakar, propio eta deszentralizatua eskuratzeko bidean langile guztiei eskaintza integrala eginez.